

Gazteen Txapelketa ' baina aurretik, ekitaldi bereziak izango dira....adi egon...izan ere, aurretik orain, martxoan dultzaina joleak aterako dira.' [Hernaniko Musika Eskolan Juan Mari Beltran](#) dagoelako edo...**dultzainari** bere garrantzia ematen zaio, baita bestelako herri instrumentuei ere, benetan zorientzekoa herrian egiten den lana, hemen duzu [lotura](#).

Asteburu honetara begira jarriko gara eta Maite Bazterretxeak **Hernaniko bigarren eskuko azoka** hileko azken larunbatean izaten dela gogoratu baitzigun eta honi, Ane Goikoetxeak zera gaineratu zion: *'26an goizean Atsegindegi plazan...bai ongi, eskertzen da benetan'*. Beraz badakizue....honetan ere baduzuela plan ederra.

Gure aldetik honakoa ekarri nahi izan genuen: *'mugikortasuna helburu hartuta, Aste Santuan aldaketak egongo dira. Adi egon, hemen duzu informazioa.'* Badakizue beraz, plan berria egongo da, eta aldaketak ezagutzeko aukera [hemen](#) bertan duzue.

Bukatzen joateko [Hernaniko](#) komunitatetik mesede txiki bat eskatuko dizuegu; hemen horman, astero uzten dugun laburpenarekin batera 'automatikoki' azaltzen den irudia aldatu nahi dugu. Zuen argazkia izatea gustatuko litzazuke, originala behar du izan zuek. Hernaniko orrialdean zuen argazkia uzteko aukera izango duzue eta hurrengo astelehenean 'atsegin dut' boto gehien dituen izango da aukeratutakoa. Eskerrik asko guztioi eta gora **Hernani**!

Orain, aste honetako laburpena ixteko, Oskar Bartolome Bragadoren hitzak: *'aste batzuk badira bertan izan nintzela eta Hernani oso aldatua ikusi nuen, ni han bizi nintzenen bestelakoa zen'* Oskarrek esandakoari. Maite Bazterretxeak horrela erantzun zion: *'Hernani zoragarria da eta gainera, seguru asko Txotx egiteko aukera izan zenuela. Zein gozoa sagardoa!'*

Txotx gozo bat eginez, agurtuko gara, baina ez hurrengo astera arte, baizik eta zuk nahi duzun arten, izan ere, [gure herriko blogean](#) bertan edo [Hernaniko orrialdean](#) uneoro egon baikaitzke.

Categories: [Albisteak](#), [Hernaniko Udala](#), [Kultura](#), [musika](#) Tags: [Atsegindegi](#), [bigarren eskuko azoka](#), [Chillida-leku Museoa](#), [dultzaina](#), [hernaniko herriko musika eskola](#), [Kixkal taberna](#), [mugikortasuna aste santuan](#), [San Patrick eguna](#), [Txistulari](#)

[Hernaniko Stock azoka, Sagardo probaketak eta adinekoen zaintzaileak](#)

2011(e)ko Martxoak 16 [Kaitin Allende Iruzkini ez](#)

Me gusta

Sé el primero de tus amigos a quien le gusta esto.

[Atsegindegiko Stock Azoka](#), [Sagardo probaketak](#) eta [adinekoen zaintzaileak](#) dira aste honetan [Hernani](#)ko komunitateko hesian nagusitu diren gaiak.

0
tweets

Retweet

Hasteko, eta udaberriari dagokion ongiatorria egiteko, jantzi berriak lortzeko aukera izan zenuen iragan asteburuan. Amaia Fernándezek **Atsegindegiko plazan**, ostiralean eta larunbatean **Stock azoka** zabaldik egongo zela gogoratu baitzigun, gainera berak horrela animatu gintuen parte hartzera: *'Merke merke erosteko aukera! Joango zara?'* Kontatuko diguzu ia zer erosi duzun eta ia krisiari aurre egiteko neurri interesgarria ere iruditu ote zaizun. [Hemen](#) duzu informazio gehiago.

Txotx egiten jarraitzeko beste arrazoi bat ekarri digu oraingo honetan Itxaso Apraizek, izan ere, [Sagardoetxeak Probaketak antolatuta](#) baititu **Astigarraga, Usurbil, Azkaine** eta [Hernani](#)ko sagardotegietan. Itxasok zera dio: *'Gozoa, ez? Joango zarete? Hemen duzue informazioa.'*

Bukatzeko, Beñat Mendiak gure hesian utzitako emaria ekarri nahi izan dugu. Apirilean **etxean adinekoak zaintzen** dituztenentzat ikastaroa egongo da eta zaintzaileentzat laguntza guztia ongiatorria denez, honatx gehiago jakiteko [esteka](#).

Honenbestez, asteburu ona opatuz eta [gure orrialde](#), zein [gure herriaren blogean](#) parte hartzen jarraitzeko animuekin agurtuko dugu aste honetako laburpena.

Categories: [Albisteak](#), [Sagardoa](#), [Txotx](#) Tags: [adinekoen zaintzaileak](#), [Atsegindegi](#), [Hernaniko Stock azoka](#), [ikastaroa](#), [Sagardo probaketak](#), [Sagardoetxea](#)

[Inauteriak eta Hernani'n Music](#)

2011(e)ko Martxoak 9 [Kaitin Allende Iruzkini ez](#)

Me gusta

Sé el primero de tus amigos a quien le gusta esto.

[Hernani](#)ko inauterien hasieran egindako **omenaldia** eta **amaieran** egindako **"sardinaren entierroa"** eta **Hernani'n Music** izan dira aste honetan gurekin partekatu dituzuen gaiak [Facebookeko orrialdean](#).

0
tweets

Retweet

Ostegunean hasi ziren **inauteriak** eta Olatz Gartzia [esteka honekin](#) jakinarazi zigunez, hasiera ofiziala **Pili Lujanbio**, **Iñaki Apezetxea**, **Joaki Lujanbio** eta **Joxe Amondaraineri egindako omenaldiarekin** izan zen. *"Inauteriei hasiera emateko moztorra aukeratu al duzu?"*, galdetu zigun. Zein izan zen hasierarako erabili zenuten moztorra? 😊

Bestalde, bost egunen ondoren, Beñat Mendiak **inauterien azken egunari** buruz hitz egin zigun. **"Sardinaren entierroa"** ospatu zen jaiei agur esateko 😊, eta Beñatek utzi zigun estekan, [hauxe](#), duzue informazioa. Zein moztorra aukeratu zenuten amaierarako? Hau ere, Beñatek egindako galdera da.

Amaitzeko, kontzertu bat. **Hernani'n Music 2011**ren kontzertua izan genuen ostiralean, Biterin, [Garikoitz Mendizabal](#) eta [Xabier Zabala](#)ren eskutik. Albistea irakurtzeko aukera, [esteka honetan](#). Joan al zineten? Eta, badakizue Xabier Zabala [Pirritx eta Porrotx](#)en 'Maite Zaitut' abestiaren egilea dela? 😊

Honenbestez, aste honetako laburpenari amaiera emango diogu. Hurrengo astean zuek partekatutako gaiekin bueltatuko gara. Mila esker hor egoteagatik! Agur bero bat eta ondo izan!

Categories: [Albisteak](#), [Inauteriak](#), [Kultura](#), [musika](#) Tags: [abestia](#), [amondarain](#), [apezetxea](#), [biteri](#), [entierroa](#), [garikoitz](#), [henaninmusic](#), [iñaki](#), [Inauteriak](#), [joaki](#), [joxe](#), [kontzertua](#), [lujanbio](#), [maite](#), [mendizabal](#), [moztorra](#), [omenaldia](#), [pili](#), [pirritx](#), [porrotx](#), [sardina](#), [xabier](#), [zabala](#), [zaitut](#)

[Hernaniko inauteriak eta sagardotegien Eusko Labela](#)

2011(e)ko Martxoak 2 [Kaitin Allende Iruzkini ez](#)